

Negazionistak



IÑAKI BARCENA HINOJAL
EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

2020 urte pandemikoan, negazionismo eta negazionista kontzeptuen erabilera biderkatu egin da oso, eta nago kontzeptuaren jatorriaz, esanahiaz eta erabileraz sakontzea mezezi duela, batez ere jakiteko zertaz ari garen polemika sortzen denean. Hitzegiak dio negazionismoa dela zientifikoki frogatuta dauden errealtate edo ebidentzia historikoak ukatzea edo ezeztatzea, egitate deseroso bat ekidin edo saihesteko asmoz. Horrela, batzuek juduen edo armenioen holokaustoak ukatu dituzte eta beste batzuek eboluzioaren teoria darwinista, kreationismoaren defentsa eginez.

Klima aldaketa. Azken hamarkadetan, enpresari, politikari eta zientzialari gutxi batzuek Lur planetaren berotze efektu antropogenikoa ukatu dute. Gure inguruko adibide bat gogoratze arren, 2008an Václav Klaussek eta José María Aznarrek, FAES fundazioaren ekitaldi batean *Planeta azul, no verde* (Planeta urdina, ez berdea) liburua aurkeztu zuten, lehenengoak, Txekiako presidente ohiak, testua idatzita, eta bigarrenak hitzaurrea. Euren aburuz, ekologismoa komunismoaren ondotik datorren tota-

Gizadiak bizitzaren erreprodukzioaren mugak eta bizitza bera sostengatzen duten ziklo naturalak errespetatu ezean, kolapsoa ekidinezina da

litarismo berria da eta horregatik klima aldaketaren teoria arriskutsua da, guztiz. Bushek, Trumpek edota ExxonMobil petrolioaren multinazionalak ere negazionismo klimatikoaren aldeko jarrerak babestu dituzte konplexurik gabe, nahiz eta minoritarioak izan.

Gutxiengoan daude, gaur egun aztertuta eta diskurtso zientifikoek inoiz baino gehiago ekologismoaren tesiak berresten dituztelako. Krisi ekologikoa ezin da ukatu Antropozenoaren garaian

eta gure zibilizazioak Naturaren mugekin topo egiten du behin eta berriz.

Negazionista nagusiak. COVID-19aren etorrerarekin negazionismoaren agerpena komunikabide eta sare sozialetan nabaria izan da. Baina ikusi dugunez negazionisten artean oso publiko eta eragile desberdinak ageri dira konspirazioaren teoriak erabiltzen, maiz modu kontrajarriari. Aldiz pandemiaren sorburua argitzeko azalpen zientifikorik onena gure espezieak eragindako bio-niztasun krisian oinarritutakoa dela uste dut. Gizadiak bizitzaren erreprodukzioaren mugak eta bizitza bera sostengatzen duten ziklo naturalak errespetatu ezean, kolapsoa ekidinezina da.

Horregatik negazionista nagusiak eta kaltegarrienak, nire iritziz, ez dira “konspiranoikoak”, baizik eta krisi pandemiako hau gertakizun partikular eta isolatu bezala ikusten duten lider politikoak, teknologiaren laguntzarekin soilik (txertoak, digitalizazioa, 5G...) egoera kritiko hau gaindituko dugula diotenak, eta bide batez kontrol soziala, hazkundera eta etekin ekonomikoa bilatzen dituzten korporazioak. Horiek bizitza duina ukatzen dute. ●

Basherrri
SAREA

Elika gaitetzen irizpideak kontuan hartuta eta amalurra zainduz

655709043 | info@basherrisarea.eus